


Lezoko zine agenda

IRAILA SEPTIEMBRE

2004



Gezala

AUDITORIUMA


000
a
m
a
8
0
0
z
i
n
e
m
a



LAS HORAS DEL DÍA

Abel bere amarekin bizi da Bartzelona inguruan. Bere bizitza bere familia, andregaita, taberna eta lagunak dira. Dena guztiz normala. Abelek ordea, berriro erahiltzen du. Zer burutazio ditu itxura hain normaleko pertsona batek horrelakoak egiteko? Jaime Rosalesen filme hau 2003ko ezustetako bat izan zen. Aipatu urteko Canneseko edizioan FIPRESCI saria irabazi zuen inork espero ez zuenean. Zuzendari berri bat ezagutzeko parada!


2003, Espainia 110 min. Jaime Rosales
A. Brendemühl, V. Romero, P. Monsoriu, A.Roca, M.A. Martínez,



LA LEYENDA DEL PIANISTA DEL OCEANO

"Cinema paradiso" rekin egin zen ezagun G.Tornatore. Orduan zinemaren mundua tratatu bazuen oraingo honetan musika izango da historiaren ardatz nagusia. Transatlantiko batean egin du bere bizi osoa "Novecento" izeneko gazteak. Behin ere lurreratu gabea, pianojole paregabearen begietatik XX. mende hasiera ezagutuko dugu... Hori bai musika goxoaz lagunduta.

1998, Italia 125 min. Giuseppe Tornatore.
Tim Roth, Pruitt Taylor Vince, Mélanie Thierry, Bill Nunn.



AUDITION

Joan den maiatzean zinema japoniarraren alderdi ilunenetariakoak ezagutzeko parada izan bagenuen, "Audition" filmean izaera berekoak (edo okerragokoak) aurkituko ditugu. Telebistako ejekutibo batek emakume audizioa prestatzen dio lagunari neskato batekin elkartu dadin. Itxurari dagokionez aukeratzen badakiela erakutsiko du, neska ederra eta misterioitsuaren alde egingo baitu ... baina jarrereri dagokionez zer?

2000, Japonia, Hego Korea 115 min. Miike Takashi.
Ryo Ishibashi, Eihi Shiina, Tetsu Sawaki, Jun Kunimura.



LA DUCHA

Seme zaharrena Pekinera bueltatzen da aita eta atzeratua den anaiaren-gana. Familiaren betiko negozioa lehen ez bezala ikusten ikasiko du eta bainu komunitarioen garrantziaz oharturik hura aurrera ateratzeari ekingo dio. Txinatik iristen diren filmeak ikusteko aukerak ez dira ugariak, hare gutxiago, honek bezala Donostiako Zinemaldian saria jaso dutenak.


1999, Txina 92 min. Yang Zhang.
Wu Jiang, Quanxin Pu, He Zeng, Xu Zhu.



CASABLANCA

"Casablanca" ikusi ez duenik ziur ez duzula ezagutzen, baina nork ikusi du behar den bezala formatu handiko pantailan? Bigarren Mundu gerran kokatua, Rick (H.Bogart) Marruekosera herbesteetara, bertako kafe ospetsuenaren ardura du. Ilsa, Ricken amorante ohia, txekiar erresistentziako buruarekin Casablancara dator... Intriga, amodioa, zine beltzaren ezaugarriak... 10 pelikula hoberenetako zerrenda guztietan auzaltzen da "Casablanca" hau!


1942, EEBB 102 min. Michael Curtiz.
Humphrey Bogart, Ingrid Bergman, Paul Henreid, Claude Rains.



DOLLS

Uztaileko agendan idazten genuenari jarraiki, Kitanok giza sentimenduen bi mutur ukitu ohi ditu: bortxakeria eta sentsibilitatea. Kasu honetan sentsibilitatearen maisulanatzat har genezakeen filmea tajutu du japoniarrak. Kitanok mendealdeko zine egiteko moldeak lantzen ditu batzutan eta ekialdekoak bestetan. "Dolls" bigarren horretakoa da. Elkarriketa gutxiko imagin zoragarrietan sostengatzen den pelikula bikaina!


2002, Japonia 114 min. Takeshi Kitano.
Miho Kanno, Hidetoshi Nishijima, Tatsuya Mihashi, Chieko Matsubara.



EL CABO DEL MIEDO

J.Lee Thompsonen 1962an filmatutako "El cabo del terror" filmaren bertsioa da Scorsese egindako lan fin hau. Orduan, R.Michumek egiten zuen pertsonaia R.De Nirok egingo du hemen; G.Peckena berriz, N.Noltek. 14 urtez kartzelan abokatuaz mendeku nola hartu pentsatzen aritu ondoren, aske geratzen da Max Cady (De Niro)... De Niroren presentzia erabat beldurgarria da! Historiaren egitura Hitchcocken presentzia somatzea ekidiezina da!


1991, EEBB 128 min. Martin Scorsese.
Robert de Niro, Nick Nolte, Jessica Lange, Juliette Lewis.



LAS FLORES DE HARRISON

Antzezle taldeko partaide gehienak iparramerikarrak badira ere, ekoizpen frantziarra da filme hau. Hori datu garrantzitsua da kontatzen digun historia Balkanetako gerran kokatua dagoela baldin badakigu. Harrison argazkilaria profesionala Balkanetan zebilela desagertu da. Bere emaztea (Andi MacDowell) bizirik dagoelakoan bila doa. Balkanetan gertatu zena kontatzeko beste modu bat. 2000. urteko Donostiako Zinemaldian arrakasta izan zuen, 3 sari!

2000, Frantzia 130 min. Elie Chouraki.
Andie MacDowell, Elias Koteas, Brendan Gleeson, Adrien Brody, David Strathairn.



KAMCHATKA

Argentinako diktadura garaian kokatua Ricardo Darín, Cecilia Roth eta Héctor Alterio dira antzezle nagusiak. Zuzendariak modu zoragarri batean lortzen du itolarri sentimendua bortxazko irudi bakar baten beharrik gabe. Argentinako ekonomia kaxkar dabilen garai hauetan, inoiz baino filme gehiago iristen zaizkigu bertatik, oso historia interesgarriekin gainera!


2002, Argentina 105 min. Marcelo Piñeyro.
Ricardo Darín, Cecelia Roth, Héctor Alterio, Fernanda Mistral.



LA ÚLTIMA NOCHE

Beltzen zinemagile bezala ezagutua, Spike Leek azal zuriko antzezleak izango ditu lehenengoz protagonista bere filme batean. Monty Broganek 24 ordu ditu datozen 7 urteak espetxean pasatzera joan aurretik. Manhattaneko "nagusia" zeneko garaia igaro dira eta azken orduak familia eta lagunak agurtzeko erabiliko ditu, baina horien artean ote dago bera salatu zuena? Eszena batzuk ahaztekin dira! Edward Norton Lezon ikusteko hirugarren aukera!!!

2002, EEBB 135 min. Spike Lee
Edward Norton, Philip Seymour Hoffman, Barry Pepper, Rosario Dawson, Anna Paquin.



HARTZ TXIKI

Hartz txiki baten eta bere lagunaren historia kontatzen dizkigute marrazki bizidun hauek. Hartz txiki eta bere lagunak "Cub" izeneko laguntxoari laguntzea erabakitzen dute. "Cub" ek bere ama aurkitu behar du eta ez daki nola. Hartz txiki eta koadrilak elkarrekin bat eginda, abentura ezberdinak biziko dituzte laguntxo berriari laguntzeko.

2001, Kanada 75 min. Raymond Jafelice.
Marrazki bizidunak.



PARRANDAN

Takolo, Pirritx eta Porrotxek parrandarako gogoaz bazutela bagenekien, baina gai horrekin espektakulu berri hau egiteko gai izango ziren ez zitzaigun burutik pasa ere egin. Oraingoan abenturak parrandan izango dituzte, herriko festetan. Dantzan eta saltoka, txar-rangaren atzetik ibiliko dira guretzako hain farregarriak diren bihurrikietan.


2001, E.H. 75 min. Takolo, Pirritx eta Porrotx.
Takolo, Pirritx eta Porrotx.



DORAEMON ETA DENBORAREN TRENA

Doramenon ez da pertsonai ezezaguna haurren artean. Joan den abenduak programazioan Doraemonen abenturak ikusteko aukera izan genuen Lezon, "Zinema 800" egitasmoaren barnean. Oraingoan Doraemon, Nobita eta talde osoak tren miresgarri bat hartuko dute: denboran zehar bidaiatzako gai dena!

1985, Japonia 98 min. Tsutomu Shibayama.
Marrazki bizidunak.



HAIZEAREN NOMADAK

Hegaztien emigrazioaren inguruan egindako dokumental entzutetsua izatera iritsi da eskuartean dugun hau. Ekipo frantziar batek pazientzia handiz, lau urtez, lau kontinentetan zehar 75 bidai egin behar izan ditu ordu eta erdiko filme koloretsu eta itxaropenez beterikoa egiteko. Edukia eta ikusgarritasuna modu paregabearen elkarloturik!

2001, Frantzia 90 min. Jacques Perrin, Michel Debats & Jacques Cluzaud.
Dokumentala



TINTIN. MARRAZOEN AINTZIRA

Tintinek ez du abentura bila joan beharrik, beraiek datozkio nahigabeen. Ez du horrek esan nahi abenturazale ez denik ordea. Tornasol irakasleak gonbidatuta Syldaviara doazela hegazkinak istripu susmagarria izango du. Tintin eta Haddock kapitainak urraturik izango ez badute ere, nahi gabeen ikerketa, eta ondorioz, abentura baten aurrean izango dira berriro ere.


1972, Fr., Belgika 81 min. Raymon Leblanc.
Marrazki bizidunak.

IRAILA - SEPTIEMBRE

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 2	22:00	LAS HORAS DEL DÍA
LARUNBATA 4	22:00	DOLLS
IGANDEA 5	16:30	HARTZ TXIKI
OSTEGUNA 9	22:00	LA LEYENDA DEL PIANISTA DEL OCEANO
LARUNBATA 11	22:00	EL CABO DEL MIEDO
IGANDEA 12	16:30	PARRANDAN
OSTEGUNA 16	22:00	AUDITION
LARUNBATA 18	22:00	LAS FLORES DE HARRISON
IGANDEA 19	16:30	DORAEMON ETA DENBORAREN TRENA
OSTEGUNA 23	22:00	LA DUCHA
LARUNBATA 25	22:00	KAMCHATKA
IGANDEA 26	16:30	HAIZEAREN NOMADAK
OSTEGUNA 30	22:00	CASABLANCA

URRIA - OCTUBRE

LARUNBATA 2	22:00	LA ÚLTIMA NOCHE
IGANDEA 3	16:30	TINTIN. MARRAZOEN AINTZIRA



Berriro martxan ZINEMA 800

